BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2998

EBAZPENA, 2017ko maiatzaren 30ekoa, Turismo eta Merkataritzako sailburuordearena. Honen bidez, argitara ematen da merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programan ezarritako diru-laguntzak 2017ko ekitaldian emateko deialdia.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko ekainaren 25ean emandako Aginduaren bitartez (2014ko uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.) –Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduaren bidez aldatua (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk.)–, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ematen dituen diru-laguntzen nondik-norakoak ezartzen dira, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten merkataritza-establezimenduek modernizatzeko inbertsio-proiektuak gara ditzaten.

Merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa arautzen duen Aginduaren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, programan iragarritako laguntzak emateko 2017ko ekitaldiko deialdia egin behar da, eta horretarako eman beharreko arauak eman.

Horiek horrela, aipatutako aginduaren 8. artikuluan ezarritako ahalmena dela bide,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuak 2014ko ekainaren 25ean emandako Aginduaren bitartez (2014ko uztailaren 2ko EHAA, 124. zk.) –Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduaren bidez aldatua (2015eko ekainaren 26ko EHAA, 119. zk.)– arautu zen merkataritza-establezimenduak modernizatzeko laguntza-programa, eta, hain zuzen ere, laguntza horien 2017ko ekitaldiko deialdia egitea da ebazpen honen xedea.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deitutako laguntzak finantzatzeko, 3.750.000 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren kontura.

Deialdi honen barruan guztira emango diren laguntzek ezingo dute gainditu artikulu honetan ezarritako kopurua. Horrenbestez, aipatutako zenbatekoa agortzen bada, ez da diru-laguntza gehiago emango, eta, beraz, handik aurrera, ebazpen honek ez du ondoriorik izango. Egoera hori izanez gero, haren berri jakinaraziko da Turismo eta Merkataritzako sailburuordearen ebazpen baten bidez.

3. artikulua.– Eskabideak aurkezteko baldintzak, lekua eta epea.

1.– Enpresa eskatzaileek, laguntzak eskuratzeko, programa arautzen duen Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte (agindu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak aldatu du).

2.– Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2014ko ekainaren 25eko Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (agindu hori Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuaren 2015eko ekainaren 24ko Aginduak zuzendu zuen), eskabideak eta gainerako agiri osagarriak aurkezteko, bide telematikoak erabili daitezke, edo aurrez aurre aurkeztu Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lurralde-bulegoan –proiektua non egingo den, lurralde historiko hartan–, Eusko Jaurlaritzaren Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan (Zuzenean), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

Eskabidea lortzeko eta hori betetzeko, ondoren adierazten den egoitza elektronikoan bakarrik egin ahal izango da:

http://www.euskadi.eus/web01-a2merka/es (gaztelania)

http://www.euskadi.eus/web01-a2merka/eu (euskara)

Eskabidearen edukia eta erantzukizunpeko adierazpenen edukiak eransten dira, herritar oro jakitun izan dadin.

3.– Pertsona fisikoek, izapidetze elektronikoa erabili nahi ez badute, eskabidea informatikoki bete eta grabatu ostean, inprimatu eta behar bezala sinatuta bidali beharko dute, aurreko artikuluan ezarritako tokietan.

4.– Pertsona juridikoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, behartuta daude izapideak bitarteko elektronikoen bidez egitera, eta, horretarako, identifikazio elektronikoko bitartekoren bat izan beharko dute.

5.– Eskabideak aurkezteko epea, hasi, deialdi-ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, goizeko 09:00etan, eta 2017ko uztailaren 17an bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi-ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 30a.

Turismo eta Merkataritzako sailburuordea,
ISABEL MUELA LÓPEZ.

ERANSKINA

ESP. ZK.

ESKATZAILEA	

Jauna/Andrea: _____

NAN zenbakia: _____

Emakumezkoa ☐ / Gizonezkoa ☐ (*estatistika-ondorioetarako, nahitaez betetzekoa*)

Honako enpresa honen legezko ordezkaria:

Sozietatearen izena: _____

IFK: _____ EJSN: _____ EJZ: _____

EJZn alta ematearen data: a) Enpresarena: _____

b) Merkataritza establezimenduarena: _____

Pertsona juridikoa bada: Kide-kopurua (emakumeak) _____ Kide-kopurua (gizonak) ____

Helbide soziala:

Lurraldea:_____ Udalerria: _____

Herria:_____ PK: _____

Kalea: _____ , zk.: ____solairua: __

Telefonoa _____ Faxa _____ , URL (web-orria) _____

Harremanetarako pertsona:

Izen-abizenak: _____

Telefonoa _____ Faxa _____ Helbide elektronikoa: _____

HAU ESKATZEN DU:

Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko programako laguntzei heltzea (MEC) -2017

❑ Baimena ematen diot Merkataritza Zuzendaritzari, administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez lor daitekeen NANaren inguruko dokumentazioa biltzeko, hala nola egiaztatzeko, administrazio honetan bezala baita beste organismo publiko batzuetan ere, laguntzen onuradun izateko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna.

❑ Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, jakitun nago eta onartzen dut Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari ematen dizkiodan datuak fitxategi batean sartuko dituela, administrazioak bere eskumenen barruan erabil ditzan. Datuak ikusi, zuzendu, ezabatu edo aurkaratu nahi izanez gero, honako helbide honetara jo dezakezu idatziz:

Kontsumo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz.

_____, 2017ko _____ aren ____ (a)

Izenpea eta zigilua:

(Ondasun-erkidegoa izanez gero, ordezkari edo ahaldun bakarrak hemen izenpetu behar du, eta, kide guztiek, horretarako zehaztutako inprimakian)

MERKATARITZAKO ZUZENDARI JAUNA

I. ORRIA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

ESP. ZK.

ESKATZAILEA

Jn./And.: _____NAN zenbakia: _____

Enpresa honen ordezkari gisa: _____IFK: _____

HAU ADIERAZTEN DU:

- Zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekikoen ordainketa egunean duela.

- Enpresak, eskabidea egin aurreko kontabilitate-ekitaldia ixteko datan, guztira_____ langile zituela, _____ gizonezko eta _____emakumezko.

- 2016ko abenduaren 31n, urteko fakturazioa ez zela 50 milioi eurotik gorakoa, edo 2016ko abenduaren 31ko balantze orokorra ez zela 43 milioi eurotik gorakoa.

- Enpresa honetan ez dute parte hartzen bere kapitalaren % 25 edo gehiago gainditzen duten honelako enpresek: 250 langile edo gehiago dituztenek, 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumenarekin eta 43 milioi eurotik gorako balantze orokorrarekin.

- Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galarazten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez izatea, ezta haiek jasotzeko gaitasunik gabe uzten duen legezko debekurik ere, horren barruan honakoak direla: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea oinarri hartuta, sexu-diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak.

- Laguntza-eskabide honetaz gain, eskabidea aurkeztu eta/edo laguntzak jaso dituela inbertsio-proiektu honetarako honako erakunde publiko edo pribatu hauetan, datan adierazitako egunera arte: (bete ezean, ulertuko da ez duela beste laguntzarik eskatu)

Eskaera Urtea	Erakundea	Programa	Eskatutako Zenbatekoa	Emandako laguntza

- Laguntza-eskaera honez gain, azken 3 urteotan erkidegoko arauek ezartzen duten minimis (2) laguntzen erregimenaren menpe dauden diru-laguntza hauek jaso ditu (1):

Eskaera Urtea	Erakundea	Programa	Emandako laguntza

- Enpresak ez du armarik ekoizten, ez merkaturatzen ez eta finantzatzen ere, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legean zehaztutakoa betez.

- Zerrenda honetakoek lan-harremana dute laguntza eskatu den merkataritza establezimenduarekin:

NAN	Izen-abizenak	Titulazioa / Ziurtagiriak

- Eskatzailea ez dagoela sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruko ezein itzulketa edo zehapen prozeduratan.
- Honako itzulketa edo zehapen prozedura hauetan sartuta dagoela, eta bukatzen direnean horren berri emango diola Merkataritza Zuzendaritzari:

Espedientearen hasieraren data	Espedientea izapidetzen duen saila	Espedientearen zenbakia

Era berean, konpromisoa hartzen du erakunde publiko edo pribatuetan proiektu honetarako egiten dituen laguntza-eskabide guztiak jakinarazteko.

(1) ETEek soilik bete behar dute.
(2) Minimis arauaren arabera, enpresa batek minimis laguntzen kontzeptuan jasotzen dituen laguntza guztien zenbatekoa ezin da izan guztira 200.000 euro baino handiagoa hiru urteko epearen barruan.

_____, 2017ko _____aren ___(a).

Izenpea eta zigilua:
(Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute)

II. ORRIA: INBERTSIO-PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ESP. ZK.

ESKATZAILEA

A) EGINDAKO INBERTSIOA:

Kontzeptua:	**Balio garbia (BEZik gabe)**
Inbertsioak kudeatze softwarean	
Salgaietako balantza elektronikoak, informatika-ekipoak, aplikazioak eta hauen osagarriak, betiere merkataritza-prozesuen barruan integraturik badaude edo enpresa-kudeaketarako badira.	
Merkataritza-jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak, ekipamenduak, lokala eta kanpoko nahiz barruko elementuak (merkataritza-errotuluak barne) eraberritzeko eta eguneratzeko inbertsioak	
GUZTIRA	

HAU ESKATZEN DU:

Merkataritza enpresetako establezimenduak modernizatzeko 2017. urteko laguntzetako bat jaso nahi du: _____ euro (Diru-laguntza jasoko duen proiektuaren inbertsioa, guztira)

B) EGINDAKO INBERTSIOAREN AZALPEN-MEMORIA:

III. ORRIA: INBERTSIOAREN KOKAPENA ETA FAKTURA-TAULA

Establezimendu bakar bati dagozkion fakturen zerrenda

ESP. ZK.

Establezimenduaren izena	Kalea edo plaza	Zk.	Udalerria	PK

Zk	DATA	FAKTURA ZK.	DESKRIBAPENA	HORNITZAILEA	Kudeatze softwarea	Informatika-ekipamendua	Beste inbertsio batzuk	ZENBATEKOA	Ordainketa Data

IV. ORRIA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

……..……. jaunak/andreak, …… enpresaren ordezkari gisa (IFK: ……; jakinarazpenetarako helbidea: ……., kalea: ……. PK: …….. telefono-zenbakia: ……).

Merkataritzako Establezimenduak Modernizatzeko programarako laguntzari edo diru-laguntzari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen duen pertsona edo erakundea ez dutela inoiz zigortu arau-hauste oso astunagatik eta, halaber, ebazpen administratiboaren edo epai judizial irmoaren ondorioz ez dutela inoiz kondenatu langileen Estatutuan berdintasunari buruz azaltzen diren betebeharrak edo aplikatu beharreko hitzarmena ez betetzeagatik.

Ez dagoela zigortuta diru-laguntzen eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 24.2 artikuluaren arabera.

Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela.

ETA KONPROMISO HAU HARTZEN DU:

Administrazioaren laguntzak jasotzen, hitzartzen edo kontratatzen dituzten erakundeei Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen dizkien betebeharrak bere gain hartzekoa:

- Erakundeak, emakumezko eta gizonezko langileei dagokienez, printzipio hauek betetzera behartuta daude: tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, eta dibertsitatearen eta ezberdintasunaren errespetua (3. artikulua).
- Beren jardunetan genero-ikuspegia sartzera, ekintza positiboa gauzatzera eta sexuaren araberako rolak eta estereotipoak kentzera (3. artikulua).
- Beren zuzendaritza-organoetan eta organo kolegiatuetan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izan dadin lortzera (23. artikulua)
- Estatistikak eta azterlanak genero-ikuspegiarekin egitera, datuak sexuaren arabera banakatuta bilduz eta aurkeztuz (16. artikulua)
- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitera edozein euskarritan (18.4 artikulua)

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen dut ……..(e)n, ……(e)ko ……aren ……[(e)a]n

Sinadura:

V. ORRIA:

IZAPIDETZE TELEMATIKORAKO EGIAZTAPENA

Izena ..... NAN .....

Enpresaren/Erakundearen izenean eta hura ordezkatuz

Enpresaren/Erakundearen izena ..... IFZ .....

Enpresa/erakunde mota (1) .....

Helbidea ..... Zk .....

Herria ..... PK .....

Lurralde Historikoa-Probintzia ..... Tf.. .....

Helbide elektronikoa .....

zeinak agiri hau formalizatzeko beharrezko lege-gaitasuna baitu, **BAT DATOR** Administrazioarekiko jakinarazpenak baliabide elektronikoak erabiliz Eusko Jaurlaritzako Jakinarazpen Zerbitzu Horizontalaren bidez egitearekin, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko izapide telematikoak egiteko, eta

HAU BAIMENTZEN DU

Izena ..... NAN .....

Helbide elektronikoa: .....

1.- Zehazten diren izapide telematikoak egiteko: enpresako/erakundeko espediente guztietarako sarbidea; agiriak bete, erantsi edota aurkeztea; jakinarazpenak jasotzea eta enpresaren izenean agiriak izenpetzea.

2.- Ziurtagiriak sinatzea / Agiri teknikoak ☐ Bai ☐ Ez

3.- Enpresaren/erakundearen baimenak administratzea (2) ☐ Bai ☐ Ez

Egiaztapen hau baliozkoa izango da Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari baliogabetu edo aldatu dela jakinarazten ez zaion bitartean, edo hori izapidetzen ez den bitartean, baimenak kudeatzeko aplikazio informatikoa erabiliz.

....., ...ko .....ren .....a

(Sinadura)

(1) Laguntza programaren eskatzailea.

(2) Enpresak/erakundeak baimendutako administratzaileak beste pertsona batzuen baimenak bidera eta kudea ditzake horiek kudeatzeko aplikazio telematikoa erabiliz.

Oharra: Agiri honetan jasotzen diren datu pertsonalak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoak ezartzen duenaren arabera kudeatuko dira.

VI. ORRIA. ONDASUN-ERKIDEGOEN ORDEZKARITZA.

Kide guztiek izenpetu behar dute.

	Izen-abizenak	NAN	Partaidetzaren ehunekoa
1. Kidea	_____	_____	_____
2. Kidea	_____	_____	_____
3. Kidea	_____	_____	_____
4. Kidea	_____	_____	_____
5. Kidea	_____	_____	_____
6. Kidea	_____	_____	_____
7. Kidea	_____	_____	_____
8. Kidea	_____	_____	_____
9. Kidea	_____	_____	_____
10. Kidea	_____	_____	_____

Ordezkari edo ahaldun bakarra

Izen-abizenak	NANa

_____, 2017ko _____ aren ____ (a)

Sinadura:

1. kidea Sin.: NANa:	2. kidea *Sin.:* *NANa:*	3. kidea Sin.: NANa:	4. kidea Sin.: NANa:
5. kidea Sin.: NANa:	6. kidea Sin.: NANa:	7. kidea Sin.: NANa:	8. kidea Sin.: NANa:
9. kidea Sin.: NANa:	10. kidea Sin.: NANa:		